

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

JASANGARRITASUN, NEKAZARITZA ETA NATURA INGURUNEAREN SAILA

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren 92/2023 Foru Agindua, irailaren 12koa, Lezako arau subsidiarioen 7. aldaketa puntualaren ingurumen txosten estrategikoa ematen duena

Erreferentziatzko aldaketa puntualaren izapidetzea ingurumen ebaluazio estrategiko erraztuaren prozeduraren menpe dago; prozedura hori arautzen dute Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legeak eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legeak.

Prozedura horren esparruan, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak ingurumen dokumentu estrategikoa jaso du, Lezako Udalak bidalita, Lezako arau subsidiarioen 7. aldaketa puntualari buruzkoa, Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legeak araututako gutxieneko edukiaren arabera; planaren zirriborroa ere jaso du. Horri dagokionez, adierazi behar da 7. aldaketa puntual hori 6. aldaketa puntualaren eremu berean kokatzen dela, eta antzekotasun handiak dituela ezaugarri eta irismenari dagokienez. Lezako arau subsidiarioen 6. aldaketa puntualaren izapidetzeari ingurumen ebaluazio estrategiko erraztuaren prozedura aplikatu zitzaion, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen arabera, eta 2021eko irailaren 2an, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak ingurumen txosten estrategikoa egin zuen. Prozedura amaitu zuen txosten horretan, aldaketa puntualaren hirigintza dokumentuak kontuan hartu beharreko ingurumen baldintzak jasotzen ziren. Ingurumen txosten estrategiko hori Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren 237/2021 Foru Aginduaren bidez argitaratu zen ALHAOn (106. zenbakia, 2021eko irailaren 17koa).

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, Lezako arau subsidiarioen 7. aldaketa puntualari buruzko aipatutako dokumentazioa jaso ondoren, kontsulta faseari ekin zion 2023ko apirilaren 20an, eta hilabeteko epea eman zien eragindako administrazio publikoei eta interesdunei.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2023ko irailaren 5ean eman zuen Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak (22/159 espedientea).

1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa. Aztertutako aukerak

1.1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena.

Aldaketa puntualaren xedea da Lezako udalerriko 5 poligonoko 652 lurzatia xehetasunez kalifikatzea, askotariko zerbitzuak (kultura, osasuna eta laguntza) eskainiko dituen eraikin baten komunitate ekipamenduko erabilera barne hartzeko. 7. aldaketa puntualaren bidez, erabilera berria lurzatiaren iparraldean kokatzea planteatzen da, gaur egun aldagelak dauden tokian. 6. aldaketa puntualaren, erabilera hori lurzatiaren hegoaldean kokatzea planteatu zen, ez iparraldean.

Aipatutako eremuan askotariko erabileretarako zuzkidura eraikin berri bat egiteko udalak duen interesa da aldaketa horren justifikazioa. Aldaketaren xede den lurzatia udalaren jabetzakoa da, eta sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan jasotzen denez, zati handi bat erabilera eta jabari publikoko berdegune gisa kalifikatuta dago (benetan, zentzu hertsian, hala ez bada ere), eta bertan dago udal igerilekua eta gaur egun oso gutxi erabiltzen den kirol anitzetarako pista bat.


Arabako katastrofik hortutako irudi honetan, 652 lurzattia kolore urdinxkaz nabarmenduta dago



Ortoargazki irudi honetan, 652 lurzatiaren hegoaldeko eremua koadro gorri baten bidez dago seinalatuta. Bertan ezarri nahi zen erabilera berria, 6. aldaketa puntualetan




Udalak, orain, askotariko erabileretarako udal zentro horren kokapena aldatu nahi du, arau subsidiarioen 7. aldaketa puntuala eginez, eta aldagelen eraikinaren ondoko beste kokapen batean jarri, 652 katastro lurzatiaren iparraldean, aurreikusitako erabilerak birbanatuz, irudi honetan kolore gorrixkaz markatuta ikus daitekeen bezala:



1.2. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa

Aldaketa puntualaren eremua Lezako udalerriko 5 poligonoko 652 lurzatiari dagokio. Lurzati hori herrigunearen hegoaldean dago. Arabako katastrofik ateratako hurrengo irudian, aipatutako lurzatiak kolore urdinxkaz nabarmenduta dago, eta bertan dauden ekipamenduak (igerilekuak, taberna-gizarte zentroa, aldagelak eta kirol pista), berriz, laranja kolorez:



Lurzatiak hornidura, saneamendu, telekomunikazio eta energia hornidurarako hiri azpiegitura guztiak ditu, eta eraikitzeke egokia da.

1.3. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan azaltzen denez, bi aukera hartu dira kontuan, eta, horretarako, hiru aldagai hartu dira aintzat:

– Kokapena: aldagai hau aurretik zehaztuta dago, 652 lurzatiak Lezako herrigunearen barruko udal jabetza bakarra baita.

– Erabilerak: hauek ere alde aurretik zehaztuta daude; izan ere, aldaketa puntuala sortu da udalak interesa duelako kultura, osasun eta laguntza erabilerarako instalazioak izateko.

– Antolamendua: etorkizuneko instalazioak hainbat lekutan koka litezke 652 lurzatiaren eremuan.

Horiek horrela, hauek dira aukerak, labur-labur:

– “0” aukera edo ez jardutekoa (ez da hautatu): 6. aldaketa puntualaren ondoriozko egungo hirigintza egoerari bere horretan eustean datza; horrela, 5 poligonoko 652 lurzatiaren hegoaldean, askotariko zerbitzuetarako eraikin baten (kultura, osasuna eta laguntza) komunitate ekipamenduko egungo erabilerak izango lirateke.

– “1” aukera (hautatua): 7. aldaketa puntual honetan jasotako erabilerak 652 lurzatiaren hegoaldeko zati batean soilik aldatzean datza. Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan adierazten denez, gaur egun zaharkituta dauden aldagelak kendu eta askotariko zerbitzuetarako eraikina lurzatiaren iparraldean kokatzeak kirol anizteturako pista hobeto aprobetxatzea eta eraikinaren orientazioa hobetzea ekarriko lituzke.

2. Kontsulta fasearen laburpena

2023ko apirilaren 20an, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak abian jarri zuen eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko fasea, araututako prozedurari jarraikiz. Jarraian, kontsulta egin zaien organismo, erakunde eta elkarteen zerrenda ematen da, eta haietatik zeintzuk erantzun duten adierazten da:

URA - Uraren Euskal Agentzia eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa	X
Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza	X
Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza	
Naturaren Arabako Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza Natura Elkartea	
GAIA elkartea	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartasuna	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	
Aranzadi Natura Zientzien Elkartea	
Energiaren Euskal Erakundea	
Arabako Kontzejuen Elkartea	
SEO Bird Life	
Lezako Udala	
Arabako Errioxako Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	X
Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzua	

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoaren laburpena (alegazio edo oharren kopia osoa dago Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 22/159 espedientean eta www.araba.eus web orrian):

- URA - Uraren Euskal Agentziak lehenengo txosten bat eman zuen, eta bertan zehaztu zuen eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igorri ziola, egokitzat joz gero gaiari buruzko txostena egin zezan, bat etorri Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean ezarritakoarekin.

Bigarren txosten batean, URAk, planaren laburpena eta uraren arloko zenbait ohar egin ondoren, adierazi zuen ez zuela kontuan hartu beharreko oharrik egiteko bere eskumenen esparruan; izan ere, ekipamendu eraikinak 652 lurzatiaren barruan izango duen kokapena aldatzea

baino ez dakar ebaluazioaren xede den aldaketak, eta URAk eraikin horri eta hari lotutako erabilerei buruzko txostena egin zuen Lezako arau subsidiarioen 6. aldaketa puntualaren inguruan ebaluazioaren esparruan. Horrenbestez, ingurumen ebaluazioaren prozedura horretan emandako txostenen arabera, justifikatuta dago behar den baliabide hidrikoa dagoela, bai eta hornidurarako eta saneamendurako beharrezkoak diren azpiegitura nahikoak ere.

Ebroko Konfederazio Hidrografikoak, lehenik eta behin, Uraren Legearen Testu Bateginaren eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren inguruan kontuan hartu beharreko zenbait jarraibide jasotzen ditu bere txostenean, baita jabari publiko hidraulikoan jarduketak baimentzeko irizpide tekniko batzuk ere. Bigarrenik, planaren deskribapena egin eta planak ingurune hidrikoan izango lituzkeen eraginei buruzko ohar batzuk egin ondoren, ondorioztatzen du, bai ingurumenaren ikuspegitik, bai Ebroko Konfederazio Hidrografikoak esleituta dituen eginkizunen ikuspegitik, bateragarria dela sistema hidrikoari dagokionez. Nolanahi ere, jarduketa zonako ingurune hidrikoa babesteko eskatzen du (planetik 100 metro baino gutxiagora izenik gabeko erreka bat dago), eta sustatzaileari ohartarazten dio jabari publiko hidraulikotik datozen baliabide hidrikoen aprobeitxamendu pribatiboak administrazio emakida edo baimena behar duela alde aurretik, bat etorritik uraren legerian ezarritakoarekin.

- Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, dokumentazioa aztertu ondoren, jakinarazi du proiektuaren eremuan ez dagoela kultura ondarearen gaineko eraginik.

- Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak bere txostenean dioenez, proposatutako aldaketak ez dauka, a priori, eragin arkeologikorik eta, beraz, ez da esku hartze arkeologikorik egin behar. Edonola ere, gogorarazten du ezen, aurkikuntza arkeologikorik eginez gero, berehala jakinarazi behar zaiola Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailari, Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen arabera.

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzaren Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak bere txostenean ondorioztatzen du aldaketa puntualak ez duela eraginik nekazaritza eta basozaintzako lurralde plan sektorialarekin lotutako nekazaritza eskumenen arloetan.

3. Ingurumen balorazioa. Ingurumen inpaktu nagusiak

Erreferentziako aldaketa puntualak, behin betiko onetsiz gero, ez luke ingurumen inpaktu nabarmenik izango, baldin eta ingurumen integrazioko neurri egokiak ezarriko balira. Aldaketa puntualak ekarriko lukeen erabilera eraldaketa ez litzateke drastikoa izango; izan ere, lurzatiak eta lurzatiaren iparraldean egungo aldagelen eraikinaren inguruan dagoen eremuak zuzkidura erabilerako kalifikazio bera izango luke, eta aldaketak ez luke eraginik izango lurzatiaren berdegunean, eta ez dirudi bertan dauden hiru platanondo arrunten (*Platanus hispanica*) gaineko inpakturik izango lukeenik. Zuhaitz apaingarriak badira ere, egokitzat jotzen da ale horiek bertan uztea; izan ere, ingurumen dokumentu estrategikoko ingurumen integrazioko neurrietan adierazten denez, zuhaitzak berdegune gisa kalifikatutako eremu batean daude eta estetika eta paisaia balioa dute.

Argi dago aldaketa puntualak aukera emango duela herritarrei zerbitzu soziokultural berriak eskaintzeko eta egungo eskaintza zabaltzeko eta horrek udalerriko bizi baldintzak hobetzea ekarriko duela, eta, beraz, biztanleria finkatzen lagun dezake.

Bestalde, erabilera berriak hartuko lituzkeen eraikina eraikitzea ahalbidetuko luke aldaketa puntualak, hori baita Lezako Udalaren azken helburua, eta horrek gaur egun dauden hornidura eta saneamendu azpiegiturretan ondorioak izango lituzke; hortaz, horren inguruko neurriak hartu beharko lirateke.

Azkenik, aipatu behar da aldaketa hau ezartzeak izan ditzakeen ondorioak urbanizazio eta eraikuntza obrak gauzatzeak eragindakoak izango direla. Eraginak aldi baterakoak izango dira, eta obrak bukatu bezain laster amaituko dira. Hori dela eta, ingurumen integrazioko neurriak ezarri beharko dira.

4. Ingurumen baldintzak

Ingurumen dokumentu estrategikoan jasotako neurri zuzentzaile eta babesleez gain (13. apartatua), planaren ingurumen jarraipeneko neurriez gain (14 atala) eta ingurumen dokumentu estrategikoarekin batera doan jasangarritasun energetikoaren azterlanean jasotako jasangarritasun energetikoa bermatzeko neurriez gain (4., 5. eta 7. atalak), hirigintza agiriak honako neurri hau hartu beharko du kontuan, berariazko araudian sartzeko:

– Obrek irauten duten bitartean, lubrifikatzaileak edo erregaiak biltegitratzeko ontzi estan-koak, biltegi iragazgaitzak edo beste sistema batzuk gaitu behar dira. Debekaturik dago erabiltakoak isurtzea; kudeatzaile baimendu bati eman behar zaizkio. Debeku hori beste hauei ere dagokie: hormigoi hondakinak, eraikuntza materialak, lurrak eta abar; horiek guztiak baimendutako hondakindegia edo zabortegietara eraman behar dira. Eraikuntza eta eraispin hondakinak sortzen badira, Eraikuntza eta Eraispin Hondakinaren Ekoizpena eta Kudeaketa arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak ezarritakoaren arabera kudeatu beharko dira.

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Lezako arau subsidiarioen 7. aldaketa puntualaren ingurumen txosten estrategikoa ematea.

Bigarrena. Ingurumen txosten estrategikoa nahitaezko txosten loteslea izango da, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75.1 artikulua arabera.

Hirugarrena. Ingurumen txosten estrategikoak indarraldia galduko du eta berezko dituen ondorioak sortzeari utziko dio, argitaratu osteko lau urteko epean plana hartzen edo onesten ez bada. Ez da beharrezkoa izango ingurumen organoak esanbidezko ebazpenik ematea ingurumen txosten estrategikoak indarra galdu duela adierazteko. Halakoetan, sustatzaileak berriro hasi beharko du planaren ingurumen ebaluazioaren izapidea, salbu eta indarraldia luzatzeko eskatzen badio ingurumen organoari eta organo horrek baimena ematen badu. Hori guztia, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75.5 eta 75.6 artikuluen arabera.

Laugarrena. Ingurumen txosten estrategiko hau ALHAOn argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 12a

Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko diputatua
AMAIA BARREDO MARTÍN

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria
NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA